

# EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia  
EUSKARA

Lehen Hezkuntzako 4. maila  
3. proba

Egileak: Ainhoa Imaz  
Aitor Aurrekoetxea

ibaizabal



**Koadernoak irakurtzeko bakarrik da.  
Galdera guztiak  
ERANTZUTEKO ORRIETAN  
erantzun behar dituzu.**

**Ez idatzi ezer  
koadernoan.**

## ENTZUMENA



## APOPHIS ASTEROIDEA

Orain, irratiko elkarrizketa bat bi aldiz entzungo duzu.

1. Entzun aurretik, irakurri galderak.
2. Entzun testua, eta idatzi galdera bakoitzaren erantzuna (A, B, C edo D) erantzunen orrian.

01

Zertaz hitz egiten dute?

- A. Lur planeta defendatzeaz.
- B. Asteroideek Lurrarentzat duten arriskuaz.
- C. Asteroideen erasoari diogun beldurraz.
- D. On Kixote eta Santxo ontziez.

02

Zenbat asteroide dago eguzki sisteman?

- A. Bi asteroide.
- B. Ez dago asteroiderik.
- C. Milaka asteroide.
- D. Inork ez daki.

03

Adituek zer uste dute gertatuko dela?

- A. Asteroideren batek Lurra joko duela.
- B. Euskal Herrira ez dela inoiz asteroiderik helduko.
- C. Asteroideek inoiz ez dutela Lurra ukituko.
- D. Asteroideek urtero joko dutela Lurra.

04

Eguzki sisteman dauden asteroide guztiak dira arriskutsuak?

- A. Ez, soilik Lurraren orbita zeharkatzen dutenak.
- B. Bai, guztiak.
- C. Ez dago asteroiderik eguzki sisteman.
- D. Ez, ez dira arriskutsuak.

05

Zeri deitzen zaio "On Kixote"?

- A. Apophis asteroideari.
- B. Estatu Batuetako film bati.
- C. Aphopis asteroidea desegiteko edo desbideratzeko misioari.
- D. Aspaldiko kontakizun ezagun bati.

06

Nola desbidera daitezke asteroideak?

- A. Ezinezkoa da.
- B. Leherketa baten bidez.
- C. Estralurtarrak lurrera ekarriz.
- D. Adituak elkartuz.

07

Entzun duzun testua...

- A. ...ipuina da.
- B. ...iragarkia da.
- C. ...elkarrizketa da.
- D. ...albistea da.

## IRAKURMENA



Irakurri testua, eta erantzun 8-14 bitarteko galderari erantzun orrian.

**ZER DIRA BLOGAK ETA EUSKAL BLOGOSFERA?**

"Blog" hitza modan dago Interneten, baina ba al dakizu zer den "blog" bat? Bloga web gune bat da, non pertsona batek edo batzuk zenbait gairi buruz idazten duten, albistegi pertsonal gisa-edo. Albisteak edo sarrerak kronologikoki ordenaturik agertzen dira, eta, normalean, bertara sartzen den pertsona orok iruzkinak egiteko aukera du. Blog gehienak pertsonalak dira, egile bakar batek idatziak. Beste batzuk pertsona askoren artean idazten dira. Bertan edozer gauza argitara daiteke, askatasun osoz, egunkari pertsonal bat bailitzan: albistea, iritzia, irudia, poesia...

Munduan dauden blog guztiek blogosfera osatzen dute, hau da, blog komunitateari edo sareari deitzen zaio blogosfera.

Euskaldunok badugu blogosferan txoko bat, eta txoko horri "euskal blogosfera" deitzen diogu, hots, euskaraz idatzitako blogak eta horien irakurleek osatzen duten hedabide parte hartzaileari.

Euskarazko lehenengo bloga 2001. urtean sortu zen, "Sustatu" izenarekin. Orduetik, euskal blogosfera handitzen joan da, eta gaur egun 5.500 blog inguru daude dagoeneko euskaraz, horietatik 3.000 bat aktibo edo bizirik.

*Karramarro aldizkaria, 22. zk. (egokitua)*

08

**Zer da bloga?**

- A. Idazle baten albistegi pertsonala.
- B. Interneteko orrialde ezagunena.
- C. Edonork nahi duenaz idazteko web gunea.
- D. Modako egunkaria.

09

Zer motatako testuak idatz daitezke blogetan?

- A. Albisteak.
- B. Albisteak, iritzi artikuluak, olerkiak, eta abar.
- C. Ezin da testurik idatzi.
- D. Iritzi artikuluak.

10

Zeri esaten zaio "blogosfera"?

- A. Herri batean sortutako blog guztiei.
- B. Blog guztien arteko sareari.
- C. Idazle batek Interneten dituen artikulua guztiei.
- D. Blog batean idatzitako artikulua interesgarriari.

11

Euskal blogosfera hazi egin al da azken urteetan?

- A. Ez.
- B. Bai, baina gazteleraz idatzitako blogekin.
- C. Ez, 2001. urtean izan zituen blog gehien.
- D. Bai, sortu zenetik handitzen ari da.

12

Non argitara daiteke irakurritako testua?

- A. Literatura lan batean.
- B. Entziklopedia batean.
- C. Egunkari bateko albisteen atalean.
- D. Aldizkari batean.

13

EGIA ALA FALTSUA? Markatu "X" batez laukitxo egokia, adibidean bezala:

	EGIA	FALTSUA
0. Testuak blogei buruzko zenbait argibide ematen ditu.	X	
1. Blogetan soilik adituek idazten dute.		
2. Euskarazko lehenengo bloga duela pare bat urte sortu zen.		
3. Blog gehienetan egile bakar batek idazten du.		
4. Urte gutxi barru euskal blogosfera desagertu egingo da.		

*Idatzi erantzuteko orrietan*

14

Zer kontatzen du testuak?

- A. Blogak moda-modan zergatik dauden.
- B. Blogak eta blogosferak zer diren.
- C. Interneten nork idazten duen.
- D. Munduan zehar zer blogosfera dauden.

## IDAZMENA

15



## IDATZI GUTUNA

Idatzi gutun bat zure lagun bati, udan bizi izandako esperientzia kontatuz.  
Hauxe izan da:

Zoraida izeneko 10 urteko neskatila sahararrak zure etxean pasatu du uda.  
Euskal Herrira etorri den lehen aldia izan da.

Jarraitu gidoiari:

- Idatzi eguna eta lekua.
- Agurtu laguna.
- Azaldu nor egon den etxean, zenbat denbora, zergatik...
- Kontatu nola moldatu den Zoraida: janaria, ohiturak, hizkuntza...
- Azaldu nolakoa izan den zuen arteko harremana.
- Idatzi azken agurra, eta sinatu.

**Gutunak, gutxienez, 60 hitz izan beharko ditu.**